

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 5.000 bat lagunek parte hartu dute Giza Eskubideen 2018ko Astearen jardueretan

*Programazioa atzo amaitu zen AFNdanzarekin; hots, dantza, mimoa eta antzerkia biltzen dituen ikuskizun afrikarra*

Astelehena, 2018.eko abenduak 17

Gutxi gorabehera 5.000 pertsonak hartu dute parte Giza Eskubideen Astearen barneko jardueretan. Astea Nafarroako Gobernuak antolatu du Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendaritza nagusiaren bitartez, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Astean zehar, lehen hezkuntzako ikasleek, bigarren hezkuntzako ikasleek eta herritarrek, oro har, antzerki-emanaldietan, ipuin-kontaktetan, elkarteekin egindako topaketetan eta dantza, mimo eta antzerki ikuskizunetan hartu dute parte.

Jardueren astea astelehenean aurkeztu zuten

[prentsaurrekoan](#), eta asteartean hasi zen Oralitatearen Galarekin; hain zuzen ere, munduko hainbat lekutako artistek Giza Eskubideak sustatu zituzten hitzaren, jolasaren eta irudimenaren bitartez. Guztira, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako 350 ikasle hartu zuten parte, honako ikastetxe hauetakoak: Iruñeko Elorri IP, Zizur Nagusiko Erreniega IP, Iruñeko Sanduzelai IP, Orkoiengo Auzalar IP, San Adriango Alfonso X el Sabio eta Iruñeko Claret Larraona HLHQP.

Bi antzerki-saioetan zehar, ostegunean eta ostiralean, 17 ikastetxetako 4. DBHko eta 1. Batxilergoko 1.450 ikasle joan ziren Gaiarre Antzokiarekin batera antolatutako "Donde el bosque se espesa" obra ikustera. Arratsaldeko saioa herritarrei eskaini zitzaion, eta guztira 650 pertsona bildu ziren.

Larunbatean, Nafarroako 19 elkarteek herritarrei erakutsi zieten Giza Eskubideen arloan egunero egiten duten lana. 2.000 bat lagunek zuzenean ezagutu ahal izan zituzten Giza Eskubideak urratzearen inguruko errealitate ezberdinak eta elkarteen elkartasun eta konpromiso ezberdinak;



Igandeko ikuskizuna Baluartean.

hala nola, arrazakeriaren aurkako borroka, heriotza duinaren aldeko eskubidea, migrazio-politikak, Sahara, osasuna edo transexualitatea.

Jardunaldian zehar, [jarduera programatuak](#) burutu zituzten, eta 500 bat lagunek hartu zuten parte.

Aste barruko programazioa atzo amaitu zen Af Ndanza taldearen emanaldiarekin, publikoarengana Afrikako argiak eta itzalak gerturatuta. Emanaldian, esklabotasuna edo emakumeen genitalen mutilazioa bezalako gaiak jorratu zituzten.